

## DON JUAN IBARGUTXI ABADE IDAZLEAREN OROITZAPENAK

*Donostia, 1983-XI-25*

*Juan San Martin*

Orixek idatzia da honako hau: “Matxinada aurreko urtietan ondo ezaguna gendun Bizkai-Gipuzkoetan Ibartutxi’tar Ion Gurutz iauna, Iaungoikozale eta Ekin irakurten gendunon artean, Bizkaia’n Eguzkitza aundia ta Ibartutxi idazle bikotea lakorik bai ete dogu beste inungo Euskalerrietan? –Bibil esango dot ezetz”. Hala agurtzen eban Nikolas Ormaetxea “Orixek” 1960. urtean *Kristinau-Ikasbide-Atzalbena* izenburutzat eroian liburua. Ibartutxiren obra nagusia zan, eta da, lau tomoz hornitzen dan lana. Bere edukiña: I-Siniskaiak, II-Aginduak, III-Ikurtonak, IV-Otoia eta Geroko bizitza, 1953tik 1958ra bitartean argitaratuak.

Nor zan Orixek horrela goستن eban gizona? Euskaltzaindia sortzeaz, 1919an izendatu ziraneko urgazleetariko bat. Horregatik eta bere idazlanengatik gure erakunde honen urre eztaietan ohorezko euskaltzain izendatuko zana.

Juan Kruz Ibartuxi Agirre, Bizkai parteko Ubidean jaioa zan 1883.eko Abenduaren 23an. Hamalau urterako Bitoriako Seminarioan sartua bederatziretez bertan abadetza estudiatzeko. Arabako Zestabe eta Gipuzkoako Eskoriatzan egon ondorean, Eibarrera etorri zan 1916. urterako, hemen jarraitzeko gerrara arte. San Andres parrokian Katekesis eta Mutualidade arduraduna zan eta Aldatzeko monjen kolejoan arima-zaina.

Eibarren ezagutu neban nik granuja bat nintzala. Ez pentsa gero eibartarrontzat “granuja” izatea gauza txarra danik. Eibarren, mutikoeri, maitasunik haundienez deitzen jakue “granuja”. Hamar-hamaika urte nituala, Don Juan doktrina maisu izan neban. Bera hil ondorean irakurri neutsan Gabriel Manterolari: “itxura baten itzala emoten eban arren, izakera atsegin eta leunekoa izan zan”. Baiña, Don Juan gogoratzeaz, nere burura ez dator haren leuntasunik, berba honen zentzu bihurrian izan ezik. Guretzat gogorra zan, gogorregia, integrista hutsa, erlijijiña bere alderdirik illunenetik bakarrrik ikusten ebana. Harentzat dana zan heriotzarako preparaziñoa eta orduan ume giñanok bizitza bera genduan maite. Nahikoa dot esatea Artetxeren *Saint-Cyran* irakurtzean, jansenismoaz jabetzen nintzan neurri berean, Don Juan irudia etorrela neregana. Hala be, eibartar elizatarrak (elizkoia danari esaten

jako Eibarren “elizatarra”) errespetuz eta maitasunez gogoratzen dira Don Juanegaz.

Egia esan, gure umetzaroko Eibar bera be ezagutu beharrezkoa da. Abaderik gehienentzat ezin zeikean izan gauza erraza gizarte giro haretan bizitzea. Hala be, Don Juan ber-berak aitortu eustan, gerraurreko Eibarregaz hain konforme ez baziran be, munduan zehar ibiltze ondorenak erakutsi eutsala zein errespetukoa zan Eibarko jentia.

1937an, gerragatik herbesteraturik, Ingalaterrara joan zan eta han urte bete egin ondorean Rochefort-eko Saint Louis-en bi urte, abade laguntzaile. Gero, herbesteetatik itzultzean, 1941etik 1950era bitartean Erriojako Badaran-en egon zan eta bertakoen artean gomuta onak itxi ebazan. Bere azken urteak Basaurin. 1969ko Irailaren 14an hil zan bere jaioterrian bertan.

Denbora haretako Eibar, esan dodan lez, ez zan izango abade batentzako leku egokia. Gaur edonon aurkitzen badogu gizarte nahastua, orduan Eibar bakarrik zan besteegandik apartekoa. Eta gizonaren jarrera ezagutzeko ondo deritxot hortaz zenbait ohar eta argitasun azaltzea.

Don Juan Eibarrera etorri zanerako, liberalkume laiko eta antiklerikalak aspalditik ipiniak eukezen gizarte-giroan sozialistek sustraiak ondo botatzeko aukerak. Akilino Amuategi “Chiclana” gatzizenez ezagutzen zan sozialisten lehen liderraren predikaziñoak abadienak baino indar gehiago euken bihargin (langile) eta behartsuen artean; Tomas Meaberen zuzendaritzapean Eibarren argitaratzen zan *Adelante!* asterokoak bere partea bete eban; eta Jose Medinabeitia medikuaren gidaritzaz, azpiegitura sendoak eukezen era askotako ekintzak indartzeko, behargineri paraisuzko mundua eskainiz. Zibilez enterratzeak noiz-nahi egiten ziran, hildakoen gorazarrez diskursoak egiteko be baeuken heuren “kura-laikoa”, Marzelino Baskaran “Sumendixa”. Janaridenda “Cooperativa Obrera” deitzen zan eta ekintza guztien koordinakuntza Casa del Pueblo-tik erooten zan, P. S. O. E. ez ezik U. G. T. sindikatoa bere etxe horretan kokaturik. Ondo begiratuta, mesianismo kutsuz betea zan sozialista haren ekintza eta aintzinako abade konserbadoreak zeregin gutxi euken. Giro haretan ondo konpontzen zan bakarra, bere herrikoitasunez, Notxe abadia zan. Baina bere “populista” arlote itxuratik ez zan libratzen eta bide haretatik bere ahalmena galdua eukan Elizak eibartarron gizaratean.

Bai, Eibarrek eroian martxan Elizak jai eukan. Nere ustez, hori izan zan Eibarrera abade bereziak bialtzeko arrazoia. 1910. urteaz geroztik Bitoriako Seminariotik urtetzen eben abade aproposak: jakituriaz hornituak, ekintza gizonak, ikuspegi argikoak eta heuren artean era desberdinetakoak, industria munduko gizaratearen konplexutasun guztiak beteaz ibiltzeko modukoak. Holakoak ziran Don Eugenio Urroz, Don Polikarpo Larrañaga, Don Gabriel Manterola eta Don Juan Ibagutxi bera, beste batzun artean.

E. Urroz tolosarra parroko, historia gaietan gizon jantzia; P. Larrañaga (Don Poli), langile arazoegaz kezkatua eta ELA-ren sortzailea, baina danen gainetik plaentziarra izatea eban eibartarron artean nasai ibilteko agiririk

naturalena (Aurten betetzen da Don Poli-ren mendeurrena be; baina, itxura danez, inor ez da gogoratzen E. L. A.-ren sortzaileaz); G. Manterola, filosofia eta liburu zalea, jardunlari ona baina ez jarduntsua, edonorregaz laster lagun egitekoa eta erudizioz betea, edozelako harremonetarako aukerako gizona. Horren artean gure Don Juan, arima-zain leiala, zuzena eta zorrotza, emakume eta umeen artean bere iluntasunez eta iluntasungatik edonorri kezka izugarria sartzekoa.

Hamalautik hamabost mila biztanlera zituan Eibarrek, idea desberdinak buruz buru aurkitzen ziran gizarte ekonomian eta politika ekintzetan, baina gure umetzaroko Eibar aberatsa zan norgehiagoka, bai lanean eta bai kulturari. Gorri seiloa zeroian eta horretarako motiborik bere bazan. Laiko ezker-tiarrak U. G. T. sindikatoa bere esku euen eta horren bidez sozialistak gailentzen ziran. Gainera, janari-denda kooperatibaz eratzetik zenbait industria kooperatibaz antolatzeraz jo eben. Armagintza zerbait baztertu eta beste gauza batzuk egitea be heuren asmoetakoa izan zan, aspaldiagoko damaskinagintza ez-ezik.

Oposizioz, eskubitarrak, alkartuz joan ziran, batez be abertzaletasunaren indarrez, "elizatarrak" heuren aldera jo eben eta Don Polik eratu zituan sindikatoak indartzuz joan ziran, E. L. A. (Eusko Langile Alkartasuna) han hasi zan U. G. T.-ren oposizioz; inoiz alkar harturik ibili baziran be. Gainera, E. L. A.-k, lehenago sozialistak legez, janari salketarako kooperatiba antolatu eban. P. S. O. E.-U. G. T.-rena "Cooperativa Obrera" zanez, besteok kooperatiba "Bide onera" ipini eben. Lehengoak bere, heuren ustez, ez ziren bide txarretik ziharduenak. Eta, hara hor be, non agertu ziran alkarren aurrez aurre, indartsu.

Garai haretako Eibar konprenditzeko Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* deitzen dan liburua irakurtzea dogu aukerakoena. Handik ikusi geinke Ibargutxik *Jaungoikoaren Legeko Aginduak* (1925) publikatzen eban garaian zer giro zan Eibarren. Konturatuko gara gure gizarte girotik nahikoa aparte zebilela. Eibarren, sinismendun eta sinismen gabeen artean, era guztietako ideak ebizen; senide artean ez ezik familietan be era guztietakoak aurkitzen ziran, eta neba-arreben arteko idea desberdinak ekarren alkarren errespetuzko oreka batean gizarte ha mantentzea. Gu, giro hartan hasiak ginan eta gauzarik normalena ereitzen jakun hala izan beharra. Gaur egun hau hemen esatea badirudi asmakizun hutsezko ilusioa ete dan. Baina, ziurtatzeko abade haretako baten aitortza ipiniko dot lekuko, Don Gabriel Manterola berak kontatu euskun Eibarrek zer irakatsi eutsan. *Eibar* aldizkariko ale batean 1971. urtean idatzi eban; hara zer ziñuan:

"Erri bakoitzak izakera berezia euki oi dau eta ortik sortzen da oldozkera edo pentsakera, izkera, artu-emon, oitura ta yokabidean erri bakoitzak besteak ez daben "zerbait" eukitea.

"Zerbait" ori zer dan? Esan dogun guztitik sortzen dan erri bakoitzeko giroa. Eta onetan Eibar'en antzekorik... Eibar bakarrik".

Eta, ondorean, Eibarren berak zer irakatsi jaso eban adieraziko deusku; era honetara jarraituz:

“Gizonen barri asko yakin barik Eibar’era eldu nintzan. Orduan Eibar estuta larri ebillen. Beste itzik ez zan entzuten “krisisa” baño. Eta eibartarrak ondo dakie itz orrek zer esan nai daben. Egia da, Eibar’eri ainbeste on egin dautson “Escuela de Armería” idigi barri zala, baño baita, bearrizanak bulztatuta, Arrate’rako bidea eginbearra be. Eibartarren gogo ta kemena bidegintza orretan ikusi zan. Orduantxe irakatsi eusten eragozpenen aurrean atzera ez egiten...”.

“Eibar’en ikasi neban beste gauza bat auxe da: Gizona, gizon dalako bakarrik, aintzat artzen... gaur egunean ainbeste aitatzen diran, gizonaren eskubideak, Yaungoikoaren aurrean guztiok bardiñak garala, gizona bere egiteak baño obea dala, bere akatsen aurrean biotz zabalekoak izan bear gareala, anaitasuna ta lautasuna artu-emonetan ikasteko niretzat Eibar ikastolarik onena izan zan.”

“Beste irakatsi bat, langilletasuna ta bakezale izaten. Eibar beti izan da langilleen inñurritegi bat. An alperrak ez dau biziterik. Eta guztiak lanean ikustea langorik ez dago norberak be alperkeritik iges egiteko... eibartarrak gorrotorik ez dabela ezagutzen, eta biotz onekoa dala. Auxe da Eibar’ek irakatsi eustana”.

Argi dago Don Gabriel Manterolarentzat Eibarren modukorik ez zala beste herri bat eguzkiaren azpian. Plaentziarra izan balitz, Don Poli zan lez, ez ginan harrituko eibartarrogatik holako laudorioak jasotzeaz, baina Arratiako Zeanurin jaio zan eta abadia gainera. Haregaitik bai esan geinkeala herriko semeak: “Arratiako txekorra, txikerra baiña gogorra”. Don Gabriel, izatez, bera zan bihotz onekoa eta pentsamen zabalekoa. Mundu guziagaz tratatzen ekiana eta sozialistegaz be lagun fama zeroian, gure aintziñako Eibarren.

Don Juan Ibargutxi ostera, izakeraz, Don Gabrieleandik zeharo desbardiña zan. Ez dot esango bihotz onekoa ez zanik, baina bai pentsamenez estua. Estiloz alkarregandik diferentia ziran. Alperrik esan Ortega y Gassetek: gizona, bera eta bere ingurua dala, jarrera guztiak ez dira bardinak.

Baiña Don Gabrieleak berak ziñoan, Don Juan, abade lanetan zintzoa zala. Haregaz doktrina maistra ibili zan Nati Aristondo, gaur egun Hondarribiako Karmelita monjen konbentuan buru egiten dabenak lehengunean esaten eustan Don Juan aintziñako klaseko abadia zala, baserri batetik urten eta mundua ezagutu barik, abade egiñaz arrazoi guztien jabe danaren ustein apostolutza egin nahirik ebilena. Baina, Eibar, Eibar zala. Hala be, aitortzen dau Don Juani asko zor deusala, hogetalau urtegaz monja joatea erabagi ebanean emon eutsazen kontsejuegatik. Maritxu, Natiren aizpa, orduko beste doktrina maistra bat izan zan, eta honentzat kriterio estu eta konzeptu iluneko relijiño gizona zan Don Juan. Doktrinako maistreri, berari kalian agurrik

ez egiteko agindua emona ei eukan; abadiak neskeri berba edo jaramon egitea ez zalako itxurazkoa. Gainera, kanpora begira euskaltzale agertuarren, erde-raz egitea asko gustutazen ei jakon.

Dana dala, Don Gabriel Eibarren sartu zan neurrian Eibar bere barruan sartu zan eta herriagandik jasotako irakatsiak gogoratuko ditu. Don Poligan ez zegoan Eibar sartu beharrik, bertan beste langile bat gehiago zanez. Baiña, Don Juanek herrianganako harremon hotzagoak euki zituan. Nik neuk, ez daukat garai haretako Don Juanen iritzi onik, bizitzaren azken aldian besterik uste baneban be. Baina, danok bardinak ez izatez aparte, orduko Eibarko giroan holako abade bat konprendidu beharra dago. Ni ez nintzan umerik bihurriena, baiña bai bihurrien arteko bat. Don Juanek aingeruak nahi eta gu "granujak" izan. Hau zan parabola.

Bestalde, 1931. Apirillaren 14ean, goizean goiz, Eibarko plazan Errepublikak proklamatzeez, orain baiño errespetu gutxiagogaz bandera (orain "nacional" dan kolore biko ber-bera) kenduz, hiru koloretako errepublikanoa ipiniz. Eta, gezurra badirudi be, sozialistak heurak izan ziran hori egin ebenak, Eibarren bertan Espainian beste inon baino lehen. Handik sartu jakun triunfalismodun Errepublikak zaletasuna. Gu, orduan ume ginanok, nork baretu sozialismo irautzaile haren aldeko abidadan?

Handik laster nintzan doktrinarako adiñean, amak gura ebanez komunio nagusirako prestatzea. Baina, liberal familietako umeak ez dakit Kleroa- ren ala Errepublikaren biktimak ginan. Adin horretarako norabait nahian eta noracezan, une bereko gizarte-giroaren korrentak geroiazan eta "granujen" okerkeriak, inoiz adinekoen tormentupean jartzekoak.

Libertade kriterioa bere zentzu ziurraren neurritz gainera ipini zan Errepublikaregaz. Horren irudi polita dogu politikaren aldakuntzaz hainbeste sinisten eban eibartar harena. Errebalian bizi zan bera, eta Errepublikak triunfatu ebala enteratu zanean txori-kaiolan eukan kardantxiluari lehiotik emain emon eutsan, esanaz: "Errepublikak etorri dok eta hiretzat be libertadia". Baina amain emoteaz bat hegaz Errebaleko mojen konbenturantz zoiala ikusteaz larritu zan gure gizon hori eta uluka batean hasi zan: "Horra ez! horra ez! Hor ez daukak libertaderik eta".

Egia izango da orduko antiklerikalismoa ahotik haruntza ez zoiala, inoiz Torbio Etxeberriak esan dabenez. Baina umien bihurrikerieri askok jaramonik ez eginarren, Don Juanen zuzentasun toleskaitzean ez zan kabitzen okerrik eta besoak beti balztzituta erabiltzen genduzen bere atxumurkadaz. Izan be, ordurako modan jarria zan Himno de Riego, gure buruak inoiz freskatu ez zituana, eta bere doinuaz emoten eutsaguzen ordainak Don Juani: "Si supieran los curas y frailes, la paliza que van a llevar..." kantatuz. Inoiz doktrina orduetan be himno horren doinua txistuz joaz abadiari amorraraziz. Horregatik, talde edertxoak egiten genduan Don Juanek begitan hartutakoen artean; azkenerako ordainak nork nori ez genkigula.

Harek ziran garaiak. Ume bihurrientzat zigorrak zenbat eta gogorra-koak legezkoak zirudien; nolabait ontzat hartu beharrezkoak.

Baina, Don Juanengandik, nere iritziz zigorra bera baino txarragoa zen erlijio ilunaren kriterioa, beti heriotza eta inpernua gogoratuz sartzen euskun izuagatik. Askok, bildurrez, gehiago elizara joaterik be ez genduan nahi. Gainera, gizarte-giroa genduan halakoa. Zorionerako, talde bihurria sakabanatu eban doktrina maistren artean eta bere loiba Dunixigaz tokatu jatan. On hutsa zan "Duni" eta haregana bialdu ginuzenok, aurrerantzean ez genduan ezagutu tormenturik. Gainera beste abade gazte barri bat etorri jakun, Don Felix Markiegi, ona benetan, doktrina garaian solfeo irakasle, gaztetxo guztiok guztiz maitatzera heldu ginena.

Seguru asko, politikoez, gaur lez orduan be: emon, ez dakit inork ezer emoten eban; baina, eskaini bai, eskaini, dana. Politikoen norgehiagokak ez eukon eta ez dauko akaburik.

Hala ta guztiz be, sozialistak buru hobeak eukezen, idealetan zintzo jokatzuz eta zerbitzuetan ondradu. Horregaz irabazten eutsen gainekoeri. Eibarren sozialista izatea ez zan Txomin Agirrek *Garoa-n* azaltzen eban bezin ximplea, abadiaren aurrean txapelik ez kentzea eta abar. Utopiazko iritzie-gaz ibiliko ziren behar bada; baina gizarteko justiziaz egi guztien jabe ziran ustean. Eta, *Garoa*-koa anekdota huts bat da idea batzuen jokabidea erakusteko; era berean baina guztiz beste alderdikakoa da gerra ondoko lehen urtean Untzagako plazan bi sozialistek alkarren arteko berbeta. Bata Labarixa, maliziarik bageko gizona, eta bestea Maskuelo, mundu pikaro honen barri zerbait gehiago ekiana. Labarixak itaundu eutsanean: "Honek, frankotarrok zer pentsatzen juek? Guk, zikeran gizonontzako mundu hobe bat egiteko programak eukaguzen; baina honek zer?" Maskueloren erantzuna: "Guk amesak ugari; baina honek be bajaukez heurori komeni kakuezen programak. Guretzako biharra eta mezak, eta beste guztia heurontzat".

Anekdota esajeratu horrek zerbait erakusten dau. Baina Errepublikako denbora aurrera zoian neurrian, Don Poliren ekintzak geroago eta indartsuago etozen, sozialistak ez ebelako erakutsi ez abertzaletasunik eta ez euskaltzaletasunik.

Orduko eibartarren kezka guztiak gizarte arazoetara soil soilik aurkeztuak ziran munduan besterik ezer ez balitz legetxe. Zeharo bestelakoa zan Ibargutxiren erlijiozko gogoeta, honek hau eban bere mundua eta fin ziharduan bere bidetik. Orain konturatzen naiz hobeto bere problemakaz. Eta beste leihorik ez eban irikitzen zerurakoa izan ezik. Baina, heriotzaren trantze larria jartzen eban beti bide. *Jaungoikoa'ren Legeko Aginduak* (1925). Umiendako dotrinen prestakizunak, *Jaungoiko-zale*-rako kolaboraziñoak eta eguneroko eginkizunetan buru-belarri murgildurik bizi zan Don Juan. Langilea zala, ez dago dudarik.

Bere erlijiozko lanok aztertzeke bada ni baino gizon prestuagorik eta beren lumetatik urten diran iritzi eta esaldietan oinarritu nahi neuke. Esate

baterako, hara zer ziñoan Kerexetak: “Ibargutxi’tar Jon Gurutz jauna ezaguna da euskal-irakurleen artean, uzkurtz-gaietan diarduenen artean batez bere. Lenengo maillan agertzen da beti”. Hala be, gramatikaren aldetikoan ez dator guztiz bat. Ibiñagabeitiak ordea, ez deutsa holako akatsik bilatzen eta laudorioz beterik goersten ditu bere azken lanak. N. Tauer be lanaren sakontasunez eta gaia euskeraz hain egoki agertzeaz txunditurik gelditu zan eta aipamen ederra eskaini eutsan beste biak lez *Euzko-gogoa* aldizkarian.

Baina, idazle legez euskera zaila baiña estilo bizia erabili ebala ondo agertu euskun Mikel Zarete: “Ibargutxik darabiltzan gaiak zail samarrak dira, bai. Baiña euskera aldetik bere (berak alan uste izan ez arren) zail samarrak dira. Euskera ondo ta sakon daki —jarraituko dau—; baina (bere aldiko semea dogu au bere-ta) beti berba garbiak erabili gureak kalte andia egiten deutse bere idazlanen argitasun eta gozotasunari. Beste euskalkietatik artzen dauz itz asko. Aranatarrak asmatuikoak bere ainbat artzen ditu. Gaiñera, euskera zaar zale da. Eta, jakiña, orrek astunagotu egiten ditu bere gai astunak. Dana dala, ondasuntegi bat dira Ibargutxiren liburuak”.

Iritzi horrek, bere lanik sakonena dan *Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena* delakoaren lau tomoeri dira. Horretan, gaiaren aldetik batez be, Orixe izan da jakituna, inor jakitunik izan bada, eta txosten hau nik gura dodan baiño luzeago badoia be, bere ataltxo bat irakurri nahi neuke. Hara hemen: “Bost liburu auen iturriak —esango deusku gure Orixe zanak—. Lelengo ta beiñen: Jangoikoaren Beraren itza, Biblia’tik, eta batez bere, Ebangeliotik artua; urrena, Eleizako Gurasoena; Eleiz-batzarretako erabagiak; teologia; gizonak beure argitasunez irixten dauna, edo Pilosopi zindoa. Ikusten dozunez, irakurle, ur garbiagorik eta osasungarriagorik eziñ eskeiñi. Eta oparo, eskeiñi be. Libururik onenetako soroak ondo arakatu ditu, eta areitako lorea ta guna ta mamiña biltzen, erle langilea lez saiatu da”.

“Eritxia. Lan oneiri argitasuna ta berotasuna darie. Jakiña, Jainkoaren itzari dariezan doai orreik alde batera itzirik, Ibargutxi iaunak berak beure iruzkiñean argitasuna du beti aurretik; gero sua, bero biguna, edo gitxienez, su-geia arkituko dozu emen. Euskera gozua, garbia. Oraingo euskaltzaleak bere ondo ulertu dagikee. Zenbait aldiz itz barriak edo aspaldiko ez diranak erabiltzen ba dauz, ondoan ipinten dau beste bat argitasunerako. Liburu oneik, lelengoz, Abade iaunei laguntza andia izango iakez, erriari kristiñau ikasi gura daunari. Liburu auek ederto emango dabe katoliku baten etxeko liburutegian, noizean bein eta askotan bere irakurteko”.

Euskal kulturari dagokion alderdian nahikoa ondo erakutsi euskun bere jakituria 1957an Azkue zanaren omenaldiko hitzaldian, “Azkue euskeralogo” aztertzean (ikus *Euskera*, II, 1957). Azkueren lanak gorai patuz, lanik nagusienetan erabili zituen iturri eta kriterioak begiratzuz. Lan nagusien artean *Cancionero popular vasco* aipatzea ahaztu jakon. Baiña, behar bada, Olaizola abadeak “Azkue músico” hitzaldian aipatuko ebalakoan itxi eban.

*Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena* osatzen dabien lau liburuegaz bere bizi-tzako lanik nagusia emaitutzat emon eban. Lan horretako idazkera, Zara-

tek ondo agertu ebanez, argiago izan behar eban, garbi-guran garbikeriara erori ez balitz. Hala ta guzti be, nere ustez, bere estilo eta bizkortasunari esker, ezta hain ulerkaitza. Ikurton, sakramentu ordez erabiltzeak eta ez deuta mesederik egiten, baina bere bizkaiera bere garaikoen artean ederrenetakoa da.

Azken urteetan artikulu ariñagoak idazteari emon eutsan eta hor nabari da bere idazkeraren bizkortasuna. *Karmel*-en gizonari eta arimari buruz idatzi zituan 1960 eta 1961 urteetan. Iritzi zaharretatik ez eban aldatzen, gizonaren izakeraz ziharduala, Heidegger-en berririk barik ihardutzea ez zan harritzekoa, Kant beraren teoriak be apenas ezagutzen zituanez. Eta, eboluziñoaz beste hainbeste. Ni Teilhard de Chardin-en *Le groupe zoologique humain* eta *Le milieu divin* irakurtzen niharduan garai berean, Don Juan, lehenagoko eboluzio teorien kondenzazioak barritzen. Azkenean be, gure bideak kurutzatuta genduzen. Bere kezka bakarra geroko bizitzaz zan, eternidadeko bizitzaz eta gizonaren eginkizun guztia harako gertakizunezkoa zeritxon.

Behar bada arrazoi guztien gainetik ebilen, Nork daki?

Dana dala, garaiko gizarte-giroaren biktima gu. Egun batean bidean kruzatu ginen alkar ulertu barik, baina bere zahartzaroan adiskide maite bihurtu ere bai, eta aspaldi granuja zan honek inoiz ez eban pentsatu Josafateko zelaira baino lehen doktrina maisuaren kontuak emoterik. Jaunak anpara gaitzala.



## BIBLIOGRAFIA

IBARGUTXI, JUAN KURUTZ:

- *Loyola'tar Iñaki deunaren bederatzurruna*. Bilbo, 1915.
- *Jaungoikoa'ren ta Eliza'ren Aginduak*. Zornotza, 1925.
- *Eliz Ama Deunaren ikurtonak edo Sakramentuak*. Zornotza, 1932.
- *Jaungoikoa'ren ta Elizaren Aginduak* (Bigarren argitalpena). Bilbo, 1952. (I - Geroko bizitza; II - Jaungoikoa'ren ta Eliza'ren Aginduak; III - Eliz Ama Deunaren ikurtonak; IV - Otoia).
- *Rituala ere barriztua. Untziño Santua*. Donostia, 1964.
- **Euskera** agerkaria, II t. (1957).
- *Karmel* aldizkaria, X. urtea (1960) eta X. urtea (1961).

\* \* \*

CORTÁZAR, N. de: *Cien autores vascos*. Donostia, 1966.

ETXENAGUSIA, K.; KORTAZAR, J.; ETXEBARRIA, A.: *Euskal Idazleak Bizkaieraz*. Bilbo, 1980.

ESTORNÉS LASA, B.: *Literatura*, vol III. Enciclopedia General del País Vasco (cuerpo B). Donostia, 1973.

ETXEBARRIA, T.: *Viaje al país de los recuerdos*. México, 1968.

ETXEBARRI, T.: *Ibiltarixanak*. Zarautz, 1967.

IBINAGABEITIA, A.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, V, 1954.

KEREXETA, J.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, VII, 1957.

LARRAÑAGA, P.: *Contribución a la historia obrera de Euskalerría*, 2 tomo. Donostia, 1976-77.

LASPIUR, I.: *Kooperatibak. Jakin sorta*, 7 zenb., Aranzazu, 1973.

ONAINDIA, S.: *Euskal Literatura*, t. IV eta V. Bilbo, 1975-1977.

ORMAETXEA, N. "Orixe": *Karmel*, X. zenb., 1960.

Revista *Eibar*, números 34 (1960), 42 (1960), 134 (1971), 163 (1971) y 164 (1974).

SAN MARTÍN, J.: *Escritores euskéricos*. Bilbao, 1968.

SAN MARTÍN, J.: *Eibar*. (Diccionario Enciclopédico Vasco. Auñamendi, t. X, capítulo monográfico). Donostia, 1979.

TAUER, N.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, X. zenb., 1959.

Villasante, Fr. L.: *Historia de la Literatura Vasca* (2.<sup>a</sup> edición). Aranzazu, 1979.

ZARATE, M.: *Bizkaiko Euskal Idazleak*. Bilbo, 1970.